

GURE KODE ETIKOA

BERTSIO MURRIZTUA

MONDRAGONeko Zentro Korporatiboak ezarrita ditu pertsonen eguneroko lana orientatzeko jarraibideak, interes taldeei dagokienez. Kode etikoak honako alderdi hauetan jartzen du arreta:

Jokabide arau orokorrak.

Gure balio eta printzipio kooperatiboetan oinarritzen dira, eta azpimarratzen dituzte talde lana, zerbitzu bokazioa, erantzuteko gaitasuna eta autoeskakizuna.

Lege eta arau portaera.

Erakundeetan eta bere jardueran legeak, erregelamenduak eta barne arauak betetzera behartua.

Lan harremanak.

Langileei lan giro segurua bermatzeko, beren segurtasuna eta osasun fisiko eta psikologikoa asaldatzen duten arriskurik gabe.

Interes gatazka.

Erakundeak errespetatu egiten du lankideek beste mota bateko jardueretan parte hartzea, baldin eta jarduera horiek legezkoak badira eta dagokion lankideak Zentro Korporatiboan dituen erantzukizunekin lehia desleialik edo talkarik ez badu.

Irudi eta ospe korporatiboarekiko erantzukizuna.

Zentro Korporatiboko pertsonen arreta handia jarri behar dute irudi eta ospe korporatiboa babesteko beren jarduera profesional guztietan.

Eroskeria eta ustelkeriaren aurkako neurriak.

Hirugarrenen borondatean eragiteko erakundearentzat edo norberarentzat onuraren bat lortzea helburu duten praktika ez-etikoak baztertzeko neurriak.

Ekarpen politikoak, babesak eta beste erakunde batzuetan parte hartzea.

Gai horiek arautu egiteen dira eta bakoitzaren irismena mugatu.

Informazio konfidentziala.

Zentro Korporatiboko pertsonen beren jardueretan kudeatzen duten informazio guztiaren diskrezioari, sekretuari eta konfidentzialtasunari eragiten die.

Osotasun finantzarioa.

Zentro Korporatiboaren transakzio, ekintza eta ekitaldi guztiak argi eta zehatz jaso beharko dira.

Eta jarraibide horiek guztiak betetzeko, erreferentziarako dokumentu batzuk garatu dira: Gatazkaren eta jazarpenaren aurrean jarduteko politika, Interes gatazkak prebenitzeko politika, Ustelkeriaren aurkako politika, Dirulaguntzen politika, Pibatutasun eta konfidentzialtasun politika, eta Informazioaren segurtasun politika.